



DSS2016.EU



## Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

### DESERRIA ITZULTZEN

2016ko ekainak 20 - 21 - 22 • Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera – Donostia

## Lantegiaren kronika. 1. eguna: ekainaren 20a

---

Kronikagilea: Garazi Arrula

Goizeko 10etan bildu gara diseinu minimalistadun Tabakalera barru-zurian, hiru eguneko itzulpen lantegiari ekiteko, udazken kutsuko asteburu baten ondoko astelehen eguzkitsuan. Irekiera eguna izanik, protokoloak agintzen duen gisan, ongietorria egin dute Etxeparek, DSS2016EUK eta EIZIEk. Aizpea Goenagak hartu du hitza lehenik, eta proiektuaren abiapuntuaren oinarrian dagoen pasioaz mintzatu da. Marijo Olaziregik *Fama* ekarri du gogora, arrakasta lortzeko itzulpenean ere izerditu behar baita, eta esan du «lanaren bizioa» dutela itzultzaileek. Azkenik, hogeitik gora pertsonako aretoan zegoen gizon bakarrari eman diote hitza; Xabi Paya «Donostia2016ren izenean eta itzultzaile gisa» aritu da itzulpengintza den zubiaz. Lantegiko kideei dagokiela orain aurrera eta atzera ibiltzea zubi horretan, lantegia den «oasi» honetan. Aurkezpen-lanak bukatuta, lanari ekin diote itzultzaile zein antolatzaileek.

Itziar Otegi izan da lantegiren koordinatzailea, eta izanen da hiru egunotako gidari. Egitaraua labur-labur azaldu ostean, banan-banan aurkeztu dute bere burua parte hartzaile guztiek. Arantxa Urretabizkaia izan da lehena; «Saturnon bezala» sentitzen dela esan du, hainbeste itzultzailearen artean idazlearen papera hartuta. Ondoren, itzultzaileen txanda izan da, guztiak emakumeak, guztiak Europa ekialdetik etorriak: Laura Liubinavičiūtė (Lituania); Mariya Petrova Pachkova (Bulgaria); Barbara Pregelj (Eslovenia); Katarzyna Sosnowska (Polonia); Karina Mischenkova (Errusia); Merilin Kotta (Estonia) eta Lenka Nižnanská (Txekiar Errepublika). Haietaz gainera, egunotan Miren Ibarluzeak, Aiora Jakak, Eva Linazasorok eta Iñaki Iñurrietak ere parte hartuko dute modu batean edo bestean. Lantegia euskaraz eta gaztelaniaz eginen da, itzultzaileen gaitasunen arabera.



DSS2016.EU



## Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

### DESERRIA ITZULTZEN

Oro har, itzultzaileek bakarka egiten dute lan, nahiz eta bakarturik ez dauden; horregatik da lantegi hau ezohikoa, itzultzaileak elkarlanean arituko baitira, eta idazlea ere bertan izanen da. Payak aipatutako “oasia”, eta jendez betea, gainera. Gaurko eguna idazleak eta obrak ezagutzeari eskainiko diote: aurrez aurre, Arantxa Urretabizkaia; digitalki, Joseba Sarrionandia. Eztabaida hasieratik sortu da, autorea ezagutzeak edo harekin lan egiteak etekina ematen ote duen. Kasurako, Barbara bulgariarrak aipatu du gehiegi begiratzen diogula testuinguruari, eta ez hainbeste testuari; «gehiago irakurri behar dugu, ez hainbeste autoreari entzun». Lantegiak guztirako tartea eskainiko du.

### Arantxa Urretabizkaia bere itzultzaileei

Atzera begira jarri da hondarribiar autorea, haurtzarora jo baitu gaztelaniaz egin duen hitzaldian (ulermenaren mesedetan, zeren, esan duenez, «euskararen defendatzailea izateak ez gaitu dogmara eramaten»). Euskararen egoera historikoari buruzko ohar batzuk egin ditu, Batuaren sorrera eta euskalkien egoera barne, bere ingurutik abiatuta. Familia euskaltzale batean sortua, hogeitau urte ingururekin alfabetatu zen euskaraz. Bere lehen lanak arauarekiko «ortodoxoak» zirela aitortu du, arauok arrotzak zitzaizkion arren. Obedientziagatik baino gehiago, beste lehentasun batzuk zituelako jarraitzen zien: «euskaldun guztiek dute hizkuntzalari bat bere barnean; nik ez dut halakorik, akatu egin nuen. Nik transmititu egin nahi dut, arauak bost axola zaizkit, ez dut horrekin denbora galdu nahi». Idazleen eta irakurleen arteko arrakala handiaz gazterik jabetu zela aipatu du, irakurle batek esan zionean, pozez, ulertu egin zuela haren testua, eta bukaerara arte ere iritsi zela. Otegi aipatu du gauza bera gertatu zaiola berari itzulpenen batekin.

«Ez handitu hizkuntzaren maila», hala gomendatzen die Urretabizkaia itzultzaileei, hizkera ponpoxotik alden daitezen. Esperientziak ematen dion begiradatik, ikusi du kendu eta kendu egin behar dela idaztean, «berdin itzulpenean», dioenez. Beste inoiz entzun diogun alderaketa egin du, ornitologoaren eta txoriaren artekoa: «Ni txolarrea naiz, ez dakit ornitologiaz deus, eta hegan egin nahi dut, baxu bada ere».

*Koaderno gorria* (Erein, 1998) istorio erreal batean oinarrituta dagoela aipatu du, eta idazketa prozesuari buruzko zenbait ohar egin du (zergatik mezulari bat, zergatik dialogorik gabe...). Zinemarekin izandako esperientzia batetik abiatuta, genero horren eta literaturaren arteko aldeaz mintzatu da, sentitu eta esaten direnak zabal nahiz zehatz azaltzen ahal baititu literaturak, ez, modu berean, zinemak. Horregatik erabaki zuen dialogorik gabeko narrazioa egitea,



DSS2016.EU



## Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

### DESERRIA ITZULTZEN

«komertzialki oso onuragarria ez izan arren, agian». Bestalde, haren pertsonaia gehienak zergatik diren emakumeak behin baino gehiagotan galdetu diote. «Emakumeek egiten duten literatura adjektibatua da, hormonatua, ez hala, itxuraz, gizonena». Sinpleki, nahi duelako aukeratzeko emakumeak; baina baita hobeki sartzen delako haien larruan ere.

Itzulpenari lotutako ohar batzuk egin ditu segidan: berak *ama* jarritako lekuan, *madre* beharko luke; itzultzaile batzuek *mamá* eman dutela-eta, berari arrotz egiten zaio. Gauza bera apelatibo afektiboekin; «ezin izaneren nuke *corazón mío* esan». Irakurleen esku uzten du idazleak testuaren inguruko azken hitza: «Idazleak ez daki zer egin duen, baizik eta zer egin nahi izan duen; irakurleek soilik dakite benetan zer egin duzun». Patrick Modianok Nobel Saria jasotzean esandakoekin lotura egin du: idazle batek, bere testua idaztean, Michelangeloren modukoa da Kaperá Sixtinoa pintatzen: begi bat edo esku bat soilik ikusten du, gainontzeko irudia buruan du.

### “La chica” izatetik “la vasca” izatera

Literatura tertulia izan nahi zuena tertulia linguistikoarekin hasi da. Literatur lanetan euskalkiak eta erdarak erabiltzeko aukeraz mintzatu dira; Urretabizkaiak esan du erregistro eta hizkera aniztasun hori ez dela berez txarra: «hizkuntza sortzen duzu istorioak kontatu ahala».

Itzultzaileek hartu dute hitza, eta itzulgai izan duten *Koaderno gorriaren* inguruko beren iritziak eman dituzte. Liburua sintetikoa, mamitsua, aberatsa dela esan du Mariya bulgariarrak. «Liburu biribila» iruditu zaio Laura lituaniarri, eta istorioaren unibertsaltasuna goraiatu du. Barbara esloveniarrak emakume protagonistaren hamaika aurpegietan ikusi du nobelaren aberastasuna, eta liburuaren politikotasuna nabarmendu du, «hitzaren zentzu zabalenean». Aitaren figurari buruz eztabaidatu dute, iritzi askotarikoak baitaude, emakumearen ahotsetik soilik iristen baitaio irakurleari aitaren irudia. Liburuan adierazten den bikote-harreman idilikoari buruz, emakumearen erruduntasun zalantzazkoari buruz eta erresumin ezari buruz iritziak trukatu dituzte.

Kaferako tartea egin ondoren, deserriaren ildoaz mintzatu dira, gaztelaniazko *exilio* ordaina litzatekeena. Izenik gabeko lekuan dago koaderno gorriaren idazle-pertsonaia, sasia; nolana den, Itziar Otegik esan duenez, pertsonaia oro dago nolabait deserrituta liburuan. Protagonistaren kezketako bat da, adibidez, umek euskara galtzea, hori baita batzuentzat deserritzeko modurik behinena.



DSS2016.EU



## Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

### DESERRIA ITZULTZEN

Ama izengabea duen pertsonaiatik autorearen beraren emakumetasunera igaro da gaia. «Ni beti izanen naiz puntu eta aparte bat»; kontatu duenez, literaturaren historia batean, adinkideei (guztiak gizonezkoak) eskainitako paragrafo baten ondoko puntu eta aparteren ostean zetozen Urretabizkaiaren ingurukoak. Garaia kontuan hartuta pentsa zitekeenaren kontra, hastapenetan erosoagoa egin zitzaion “emakumetasuna” geroago baino. Hala, *Saturno* kaleratu zuenean, “la chica” izatetik “la vasca” izatera pasatu zen, «eta hori eskertu nuen, nahiz eta behin eta berriz eskatzen zidaten ETArri buruz hitz egiteko». Uste du, halaber, gaur egun errazagoa dutela emakume idazleek, haurrak, bizitza profesionala eta idazketa uztartzen ahal dituztelako, «nire garaian ez bezala». Hala ere, bistan da desoreka dagoela oraindik ere: «nire semeak izan zitezkeen **idazleek** ere paternalismo handiz hitz egiten didate».

### Autoitzulpena eta kontrol-nahia

Miren Ibarluzeak jarri dio bukaera goizeko saioari. 2013an egindako galdeketa bidezko azterketa batean bildutakoak aurkeztu ditu; hain zuzen, dozena inguru idazleri egin zien galdeketa idazkuntza-hizkuntzari, itzulpenari eta abarri buruz. Tartean ziren Arantxa Urretabizkaia eta Joseba Sarrionandia, eta bi horien erantzunetatik tiraka mintzatu da gaur. Hasteko, deserriari heldu dio, itzulpenarekin lotura estua ikusten baitio; hala, gogorarazi du zenbat eta zenbat obra idatzi/itzuli diren erbestean, espetxean eta baita erbestera daraman ontzian ere.

Lur taldearekin hasi zen Arantxa Urretabizkaia literatur munduan, itzultzen, hain zuzen; zehazki, Fanonen obra batekin (*Afrikar iraultzaren alde*) hasi zen. Ibon Sarasolarekin egin zuen itzulpen hori, eta alboz albo jardun zuten, esaldiz esaldi, eskuz. Sarasolak gaztelaniatik euskarara itzultzen zuen eta Urretabizkaia frantsesetik; ondoren, biak alderatzen zituzten. Gerora, behin idazketari ekinda, ez du gehiago itzuli.

Autoitzulpenari ere heldu zion behin, *Zergatik panpox* lana gaztelaniaratu zuenean; ez du berriz horretarako bidea egin: «hizkuntza bat jakiteak ez ditu sarbidea ematen ofizio baterako». Ibarluzeak aipatu duenez, galdeketa behin baino gehiagotan atera da idazleek gero «kontrolatu eta zuzendu» egiten dituztela itzultzaileen testuak. Urretabizkaiaren esanetan, baina, bera kazetaritza lanetan ari dela ez du maite elkarrizketatuak testua kontrolatzeko gogoia erakusten duenean; beraz, ezin halakorik inori eskatu. Azkenik, maila orokorrean, idazleak aipatu duenez, euskal literatura itzultzea izan da azken hamarkadetakoa iraultzarik handiena, irakurle taldeekin batera.



DSS2016.EU



## Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

### DESERRIA ITZULTZEN

#### Sarrionandia deserritik etxera

Bigarren idazle protagonistaren poemei begiratu literario bat eman diogu bazkaritik bueltan. Goizean aipaturiko galdeketan oinarrituta, Miren Ibarluzeak ekin dio saioari, Joseba Sarrionandiak erantzundako bi aipurekin: lehena, «ia denak gara gutxi edo asko itzultzaileak»; bigarrena, «irakurtzeko eta idazteko modu bat izan da itzulpena». Jakina da iurretarrak teoria nahiz praktika ugari eskaini dizkiola itzulpenari. Ibarluzeak gogorarazi du autoretasuna zalantzan jarri duela Sarrionandiak, Aiora Jakak tesian ongi azaltzen duen bezala. Itzultzerakoan, zubi-hizkuntzak darabiltza, eta hala aitortzen du galdeketan; bestela ere hainbat hizkuntza ezagutzen ditu: frantses irakurria eskolan ikasi zuen, galegoa Carabanchelen preso batzuekin, portugesa Puerto de Santamarían irratia entzunez, eta ingelesa, berriz, unibertsitatean. Sorburu-hizkuntza gisara erabili ditu batzuk, baina batez ere gaztelania izan du zubi.

Ibarluzeak esan duenez, idazle elebiduna da, eta gaztelaniaz idatzi ditu zenbait obra ezizenez. Oraindik ere alter ego ezezagunak egonen badira ere, batzuk identifikatu zituen Aiora Jakak bere tesian. Beste itzultzaileekin izandako harremanei buruz, honela zioen Sarrionandiak galdetegian: «ez dakit liburu baten autorea izatea inportantea den, baina nire ustez, itzultzailea autorea ere bada». Itzultzailea itzulpenaren autorea izan arren, autoreak sinatuko du obra hori; gaztelaniazko itzulpen batzuetan, ordea, ez omen du bere ahotsa, tonua antzematen, eta behin baino gehiagotan «berridatzi» ditu egin dizkioten itzulpenak, hala nola, *Moroak gara behelaino artean* saiakera mardula. Xedetestuaren autore sentitzeko, eskua sartu behar du, beraz. Bitxikeria modura, Sarrionandiak kontatzen zuen artikulua bat idatzi zuela euskaraz, itzulpena eskatu ziotela eta gaztelaniaz «berridatzi» zuela; ondoren, hara non topatu zituen bi testuak itzuliak, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa, bi testu balira bezala, bakarra bi hizkuntzetan beharrean.

Esku sartze horiek irakurlea, solaskidea, beste bat izatearen ondorio direla uste du Itziar Otegik, eta bat egin du horrekin Eva Linazasoro itzultzaileak ere, egokitzapen politiko, ideologiko, kulturalak direla; izan ere, xede-hizkuntzaren irakurleak eta sorburu-hizkuntzaren irakurleak ez dituzte aurrezagutza berak. Ibarluzeak dioenez, Sarrionandiak darabiltzan itzulpen-estrategiak aldatu egiten dira besteren lana itzuli behar duenean: «besteen lanak itzultzean ahalik eta fidelena izaten saiatu naiz».



DSS2016.EU



### DESERRIA ITZULTZEN

#### Kultura gutxituetako ahotsak

Bideoz ailegatu zaigu Quebec iparraldean dagoen Aiora Jaka ikertzaile eta itzultzailearen hitzaldia. Sarrionandiaren itzulpenei buruzko tesia bukatu zuen Jakak duela bost urte, eta orain inuit eta crien artean bizi bada ere, hurbil-hurbil sentitzen du Sarrionandiaren obra, Ipar Amerikako jatorrizko hizkuntzetako zenbait testu ere euskaratu baititu idazle iurretarrak. *Hezurrezko xirulak* eta *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* dira haren poesia itzulpen-lan bildumarik handienak. Berrogeita hamar sorburu-hizkuntzatik gora aurkitu zituen Jakak, eta zubi-hizkuntzak bilatzeari ekin zion horrela. «Detektibe-lan» horren ondorioz, lehen esan bezala, zubi-hizkuntza nagusia gaztelania dela aurkitu zuen, nahiz eta hori itzultzaileak gehienetan aitortu ez. Bestetzetan, euskarazko itzulpena jatorrizkoarekin batera jaso ditu liburuetan. Jakaren hitzetan, hizkuntza/kultura gutxitu horiek azaleratzeko saiakera nabaria da Sarrionandiarengan.

Itzulpenaren diskurtso egituratua du Sarrionandiak, Jakak bere tesian «postmodernotzat» jo zuena. Zehazki, modernitateari lotutako ezaugarri asko apurtzen ditu, eta hortik etiketa; itzulpena berridazketatzat du, errekreaziotzat, baina aski hurbiletik segitzen die zubi-hizkuntzako testuei. Horrela, bada, Jakaren hitzetan, «gehiago jarraitzen dio senari bere teorizazioari baino». Itzulpenean hainbat estrategia apurtzaile darabiltza, besteak beste, apokrifo edo sasi-itzulpenak sartzen ditu itzulpen-bildumetan; hots, Sarrionandiak idatzitako poemak dira, baina beste izen batzuekin sinatuak. Hainbeste autore biltzen diren bildumetan, nekez identifikatzen ahal dira apokrifo guztiak. Horrela, Jakaren hitzetan, «idaztea eta itzultzea, bi ariketak maila berean jartzen ditu, eta beste testu batzuen irakurketarik gabe osagabe dira; beraz, ezin dira guztiz jatorrizkotzat hartu».

Harriduraz hartu dituzte itzultzaileek Sarrionandiaren jardunari buruzko Jakaren oharrak, batez ere irakurleei egokitu nahian gaztelaniazko moldaketak egiten dituela entzutean. Testua behin argitaratua, autoreak zer zilegitasun/beharrak du itzulpenean aldaketak egiteko? Testua ez al da burujabea bere horretan? Gaztelaniazko itzulpenari autorearen aitzinsolas bat eginda ez ote da aski? Iritzi-truke interesgarria izan da horren inguruan.

Tertuliari amaiera emateko, auzi politikoa ekarri du hizpidera Karina errusiarrak; azaldu duenez, Errusiako Zigor Kodean artikulua batek debekatu eta isunaz zigortzen ditu talde armatuen, LGTBren eta beste hainbat taldeekiko atxikimendua erakutsi edo *propaganda* egiten duten fikziozko lanak. Badira itzulpen “arau-hausle” argitaratu batzuk (esaterako, Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* badago), baina edo artikulua ezarri baino lehenago argitaratua da, edo soilik liburutegietan aurki daitezke kontsulta modura erabiltzeko. Karinak



DSS2016.EU



## Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

### **DESERRIA ITZULTZEN**

galdetu du, bada, nola egin behar duen itzulgaia hautatzeko, beldur baita argialetxeek ez ote duten atzera eginen lan bat proposatzen dienean.

#### **Ahotsak eta letrak**

Sarrionandiaren hamabi poema zituzten itzultzaileek beren hizkuntzetara eramateko, horietako bederatzi *Hau da ene ondasun guzia* CD-liburuan bilduak. Horietako batzuk entzun ditugu autorearen ahotsean edo abeslariren baten ahotsean, kasuan kasu, eta entzun ahala poemok iruzkindu dituzte itzultzaileek. Batzuetan errezitatuta poemak ulermena eta, ondorioz, itzulpena errazten duen arren, beste kasu batzuetan jartzen zaion doinua eta poemaren edukia bat ez datozela uste dute. Sarrionandiak poemei buruzko oharra bidali zizkien itzultzaileei, eta horiek izan dituzte lagun itzultzerakoan, nahiz eta itzultzailearen batek aipatu «poemak aski argigarriak direla bere horretan». Itziar Otegik, berriz, aitortu du berari deigarria egin zaiola poemak sortu diren testuinguruaren latza eta emaitzaren ederraren amildegiaz jabetzea.

“Oroimeneko portua” poemaren harira, euskal bertso eta poemak neurri, azentu, errima eta abarrei buruz mintzatu gara, itzultzailearen batek harriduraz hartu baitu tonalitateen bereizketarik ez egitea euskaraz sortutako bertsoetan.

Bukatu aurretik, asteazkeneko saioaren nondik norakoez mintzatu dira parte-hartzaile guztiak, eta 19:30ak aldera ahultzen hasia den eguzkiak gozatzen atera dira.